

Prentsa oharra

Nota de prensa



Donostiak Emakumeen Etxearen balioa bere 15 urteko bizitzan nabarmenduko du M8aren ospakizunean

Emakumeen Nazioarteko Egunean jarduera desberdinak egingo dira, Udalak eta elkarteek antolatuta

Donostiako Udalak ostiral honetan aurkeztu ditu datorren martxoaren 8rako, Emakumeen Nazioarteko Egunerako, kanpaina eta kartela

Aurtengo kanpainak Emakumeen Etxeak udal ekipamendu gisa herritarrei egiten dien ekarpena eta balioa aldarrikatzen ditu. Ane Oyarbide Berdintasun zinegotziak gogorarazi duenez, "Emakumeen Etxeak 15 urte bete ditu, eta, denbora horretan zehar proiektu estrategiko bihurtu da berdintasun-politikak zaintzan ezartzeko. Topaketa, eztabaida eta hausnarketa feministarako gune bat da, bizitzaren eremu guztietan emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorrerantz aurrera egitea helburu duten politiketan, programetan eta proiektuetan eragin ahal izateko".

Horretarako, "Emakumeen Etxeak aholkularitza-zerbitzuak, ahalduntze-taldeak eta prestakuntza-ikastaroak eskaintzen ditu, hiriko emakumeen ahalduntzea lortzeko estrategia gisa".

2018tik, datu estatistikoak sistematizatzen hasi garen urtetik, Etxean 6.200 emakume baino gehiagok parte hartu dute ikastaro eta talde desberdinetan, eta 7.200 hitzordu baino gehiago hartu direla aholkularitza-zerbitzuetan. Batez ere, Emakumeen Etxeak indarkeria matxistaren prebentzioan eta esku-hartzean egiten duen lana azpimarratu nahi dugu. Balioa eman beharreko beste elementu bat kogestio ereduaren aldeko apustua da: Emakumeen Etxea Elkartea eta Udaleko Berdintasun Atala elkarlanean ari dira Etxearen kudeaketa aurrera eramateko.

Kartela

Emakumeen Etxearen esentzia espazio feminista bezala eta bere 15 urteko bizitzaren ospakizuna jaso dituu Concetta Probenza diseinatzaileak aurtengo M8ko kanpainako kartelean. Sortzaileak bere diseinuan adierazi du Emakumeen Etxea sostengatzen duen motorra mota guztietako emakumeen indarra da, eta horri esker, hiria berdintasunaren aldeko espazio bizia eta plurala izatea posible da.

Prensa oharra

Nota de prensa



Askotariko jarduerak, martxoaren 8aren bueltan

Azken urteetan bezala, Berdintasun Atalak programa bakar batean bildu ditu M8ren inguruan antolatutako ekintzak. Ekintza hauek emakumeen elkarteek eta mugimendu feministako elkarteek, Donostiako Haurtxoko eta Gaztelekuek, Donostia Kulturak eta Musika eta Dantza Eskolak antolatu dituzte. Horiek zabaltzeko, hirian zehar banatuko diren paperezko kopiak banatuko dira. Programa webgunean ere kontsulta daiteke www.donostia.eus.

Gazteriako Sailak, halaber, jarduerak antolatu ditu Haurtxokoen eta Gaztelekuen sarean, dagozkion adin tarteetara egokituak. Jarduera guzti horiek hainbat helburu dituzte: emakumeen ekarpenak ezagutzea, erreferenteak diren emakumeak ikusgai egitea, eta bereizkeria kasuak identifikatzea.

Kultur etheen sareak ere egitarau zabala osatu du aurten, emakumeen elkarteek eta auzoetako talde feministek lagunduta.

Egitarauaren barnean, hitzaldiak, zine proiektzioak, musika kontzertuak, erakusketa, bertsoaioak eta abar.. jaso dira, eta bertako informazioa www.donostiakultura.eus eta www.donostia.eus ikus daiteke.

Testuinguru historikoa

Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikapenerako egun garrantzitsua da, mendeetako historiaren sinboloa. Martxoaren 8an, duela mende bat baino gehiago beren lan-eskubideak aldarrikatzen ari zirela New Yorken erreta hil ziren ehungintzako langile talde baten feminizidioa oroitzen da. Era berean, egun aproposa da benetako berdintasun eraginkorra lortzeko borrokatu diren eta borrokatzen diren emakume guztiak, garai guztietakoak, gogoan izateko.